

Sari au orain eman da leendabiziko aldiz, eta erabaki zan bezala urte birik bein eman bear zaio euskeraz idatzirikako novelarik onenari.

Erabakia artu duen batzarrea lau euskaltzaifiek osotu dute.

Sarituaren berri batzuek.

Eusebio Erquiaga Lekeition jaio zan 1912-gko. irailaren 4-an, eta gaur egunean Bilbon bizi da, Poesia eta lan asko idatzi ditu euskal-aldizkarietan argitaratu izan diranak, eta baita «Arranegi» ere, igaz argitaratu zan novela. Izan dituen aipamenen artean daude:

1936-garren urtean ohorezko aipamen bat irabazi zuen Eusebio Maria Azkue-ren gorazarrez Lekeition egin zan Euskal-poesiaren VII jaiean, bere «Lora gorriak» izeneko lirika-lanarengatik.

1950-garrean Donostian «Educación y Descanso»-k antolatu zuen leen-literatura-sariketan bigarren saria «Nekazariarena» izeneko bere poesiarengatik.

1951-gn. Donostian bigarren sariketan teatrozko leen-saria «Sinisgogorra» izeneko bere obrarengatik, ekitalde baten idatzia Gipuzkoako izkeraz, eta poesia lirikazko bigarren saria «Azkueren heriotzan» izeneko bere eresiarengatik, Lapurdiko euskeraz idatzia.

1952-gn. Euskaltzaindiko urgazle izendatua izan zan.

1955-gn. irugarren saria Euskaltzaindiak deitu zuen novela-sariketan G. Simenon-engandikako itzulpen batengatik, «Aspaldiko Maigret» tituluduna.

1956-gn. poesia lirikazko leen-saria Sara-n, «Axular handiari ohore» izeneko bere kantarengatik, Lapurdiko izkeraz idatzia.

1957-gn. aipamen bat «Usoa de Alos» izeneko opera-gaiarengatik, Bilboko ABAO-rako idatzia.

1958-gn. «Arranegi» argitaratzen da, Bizkaiko izkeraz idatzirikako oitura-novela.

Eta azkenez «Domingo Agirre» novela-saria Gipuzkoako izkeraz idatzirikako «Araibar Zalduna» novelarengatik.

EUSKAL SARIKETEAMAR URTETIK AMAIRU URTERAKO NESKA-MUTIL BIZKAITARRENTZAT

1. Euskaltzaindiak sariketa bat iminten dau Bizkaiko neska-mutillentzat 1960-gko. malatzean egiteko, adierazoko dan egun batean. Izenak bialtzeko epea amaituten dan orduan amar urtetik amairu urtera izan bear dabez. Zimenterriak oneik dira.

2. Sariak izango dira: Leenengoa milla pesetakoa, eta amazortzi sari bostun pesetako. Euskaldun aberatsak emoten badabe orretarako dirua eun eta berrogetaamar pesetako sariak iminiko dira gaiñerakoentzat. Sarietz gaiñera aipamen bereziak egin aal izango jakiez nabarmenduten direanerri, eta baita neska-mutillak gertetan dabezanerri be, diploma dotore batzuk emonik.

3. Sariketëa esamifia bat euskeraz egifik erabagiko da, eta gaiak izango dira: 1. Kristañau dotrifëa. 2. Bizkaiko erri-bertso-sorta bat Euskaltzaindiak argitaratuko dauena. Buruz ikasi bear izango dabe edozein bertso-soñu erabiliirik. 3. Gura daben ipuin bat idatzi bear izango dabe buruz. Orretarako, «Abarrak», Euskaltzaindiak argitaratu eban ipuin-sorta E. Bustinza-rena, imintena da eredutzat, eta ango ipuin bat edo beste edozein tokitan ikasirikako bat aukeratu lei. 4. Bakotxa bizi dan erriaren gaifëan zerbait idatzi. Erakusbide modura gai batzuk emoten dira, libertade osoagaz erabili aal izango direanak, bai zuzenean edo bai zearka, ta guztiak edo batzuk bakarrik: a) Elexea, b) Erria, d) Baserriak, e) Fabrikak, f) Dendak eta merkataritzea, g) Arrantzua, h) Labrantzea, i) Gentea eta oiturak, j) Bidaje batean sentidu doguna, eta abar. 5. Domingo Agirre-ren «Kresala» novelea imintena da liburu irakurgarria legez, batez be idazteko oiturea artzeko, baiña ezta ezer itanduko bere gaifëan.

4. Batzarra Euskaltzaindiak izentauko dau egingo dan eguna adierazoten danean.

5. Izenak 1960-gko. aprillaren 15-erarte artuko dira Euskaltzaindiaren etxean (Academia de la Lengua Vasca, Ribera, 6, Bilbao). Izena, deitura bi, bizilekua eta jaioteguna adierazo bear dira.

Argitaratuta dago **Euskal kantak** izenagaz bertso sortea.

«LORAMENDI» FR. JOAKIN BEDOÑA-KOAREN GORAZARREZ EUSKALTZAINDIK ANTOLATZEN DUEN LITERATURA-SARIKETA

1. Sariak, urrengo aipatuko diran galez egifikako lanentzat izango dira:

I. Bertsoan. Nai dan bezalako luzeera eta gaia duen poesiarentzat. Leenbiziko saria, bi milla peseta; bigarrena, milla.

II. Itz lauz. Bere denboran ikusiaz eta iritziak emanaz «Loramendi»-ren poesiaz egifikako lanarentzat. Lanaren luzeera ogei eta berrogetaamar orrialde artekoa izango da. Sariak, leenbizikoa milla pesetako, eta bigarrena, bosteunekoa.

III. Itz lauz. Milla pesetako sari bat ipintzen da Leniz aranaz egifikako lanik onenarentzat: bere historia, biografia, ikuspegiak, eta abar. Luzeera ogei eta berrogetaamar orrialde artekoa.

IV. Teatroa. Sari bi ipintzen dira, bi milla ta bosteun eta milla ta bosteun pesetakoak, bi teatro-lan onenentzat, ekitaldi batean edo geiagotan idatziak. Obeto ikusia izango da sariketarako, nolabait Leniz ananari dagokon lana (bertan gertatzen dalako edo bertako ipuifetan edo historian erroa duelako).

V. Poesia-esana. Sari bi daude, bosteun eta berreun da berrogetaamar pesetakoak «Loramendi»-ren poesiaren bat ondoen esaten duten aurrentzat, bai neskatala ta bai mutikoentzat.